

dignamente la noble mision del escritor al tributar este recuerdo á José Echena, á esta eminente individualidad artistica, que honra á España, de donde es natural, que honra á Roma, á donde llevó su residencia, que honra á Italia, bajo cuyo riente cielo se inspira, y que honra al mundo, puesto que el génio á todo el mundo pertenece.»

EUSKALDUN ERRIARI.¹



Odoi-tartian errañu beltzak
 Ikusten ditut ugari,
 Choriyak ere arbol gañetan
 Tristetasuna kantari;
 Itsas-urdiña bere lekutik
 Nai duelarik isuri,
 Chimisten garrak egiñaz argi
 Euskaldun biotz danai.

Ikusten ditut nola diraden
 Kontra lanean etsayak,
 Urratu nairik ondo-ondotik
 Euskal-erriko sustrayak:
 ¡Euskaldun lurra! poztu zaitea,
 Badira oraindik gizonak,
 Daukazkitenak beren zañetan
 Euskaldun-zarren odolak.

Errege aundi jakintsu ayek
 Egitenziran makurtu,
 Koroyarekin Euskal-erriyan
 Ziradenean arkitu.

(1) Composicion señalada con *accèsit* en los Juegos florales euskaros celebrados en San Sebastian en 1886. (Véase página 47.)

¿Nola zerade eriyen gisa,
¡Nola zerade umildu!
Erromatarrak etzubenian
indar zurerik bigundu?

Zure kondaira guztiz gogorra
Irakurtzian guziya,
Ikusten degu nola zauden zu
Euskal-umantaz josiya;
Leyala beti arkitzenzera
Gañera berriz garbiya,
¿Non ez da agertzen itsas-lurrean
Seme zurien argiya?

Aiton gurien indartasuna
¿Nola etzaigu orain agertu?
Esango nuke bañan obe det
Bitarte ontan isildu:
Anai maiteak, alkar gaitean,
Izkuntzarikan ez galdu,
Esan dezaten lur gaiñ guztiyan
Euskaldunak gerala gu.

Ikus-itzagun, esan Jaunari
Odoi oyek urdindubak,
Poztu gaitzaten choriyen kantak,
Soñucho fiñ alaitsubak,
Argitugaitzan eguzkiyaren
Errañu dizdizatubak,
Et' ez ditezen beñere galdu
Euskal-erriko oiturak.

FRANCISCO LOPEZ.

